

E I B A R

Eibarko parrokia guztiak eratutako sozial kursilloa, guztiz interesgarria izan da. Gaia, **Gizonaren Eskubideak**. Ain zuzen be, aurten ospatuten dogu Gizonaren Eskubideen Autorkizunaren ogeigarren urteurrena. Astean astean, barikuetan, gizonaren eskubide bat azaldu da. Zazpi berbaldi, guztitara. Ona emen programea:

Giza eskubideen autorkizunaren historia ta gaurkotasuna.

Personea ta askatasuna.

Alkartzeko eskubidea.

Sozio-ekonomiari buruzko eskubideak.

Politikan parte artu ta erri-eritxia agertzeko eskubidea.

Minorien edo enda txikien eskubideak.

Gizonaren eskubideak lortzeko bideak.

Maiatzaren 26'an umeen euskal jaia ospatu zan.

Bezperan, zapatu gauez, Astelena pelotatokian jaialdi eder batek emon eutson asikerea. San Antongo orfeoiak, Benito Lertxundik, Estitxuk eta Idoia Garmendiak, euskal musika jardunaldi atsegingarri bat eskiñi euskuen. Gaur gaurko abestiak, eta euskeraz. Jente asko.

Ta domekan, Eibarren batu ziran bertako ta inguruetako umeak. Txistulari ta dantza taldeak be, ugari. Euskal giroa alderdi guztietatik. Baiña ainbat umeri itaundu neutsen: **Euskeraz ba dakizu?** Ta erantzuna: **No sé.**

Gure errietako euskal jaiak ez ete dauke zerbait geiago, sakonago, euskal jantzi orreek baiño?